

Saminean Lagun

Ingurabideak zuen petrilean eskua pasatu zuen Tristanak, ia arroka ferekatu nahian zerbait sentiarazteko. Arraroa egin zitzaion harria ermamitan nabaritzea; ez zuen gogoratzen noiz izan zen esku-babes gabe egon zen azken eguna. Haize bolada batek kobre-koloreko adatsa lardaskatu zion, udazkeneko zuhaitzen azkenengo hostoa izango balitz bezala.

Bere lekutik gudu-zelaia behatu zuen. Barnean, azken borroka eta gero guda bukatu osteko bakea eta galdutako biziak eragiten zioten pena nahasiak zituen. Odolaren usaia nabaria zen giroan. «Noiztik egiten zait hau normala?» galdetu zion bere buruari.

Zelaian tumulu zuri txikiak ikusi zitezkeen, batzuk ezagunak eta beste batzuk izenik gabeak; batzuk adiskide izandakoak eta beste batzuk etsai. «Behintzat maindirez estaltzeko denbora izan dugu» pentsatu zuen sentsazio gazi-gozoz beteta. Oraindik ez zioten esan nortzuk gurutzatu zuten zilarrezko hesia gudak eta minak lekuri ez zuten tokira heltzeko, hura baitzen bizitza osteko paradisua oreinaren ikurra defendatzen zutenentzat. Eskua adarbetik aldentu eta soinean zeraman tabardatik pasa zuen. Bertan zeuden adarrak, bordatuak; lehortutako odol eta zikinkeriairen gainetik igarri zituen. Aringarririk ez zuen aurkitu, ordea.

Tristanak begiak itxi eta sakon arnastu zuen biriak ia amore eman zuten arte. Berriz bizirik sentitzea nahi zuen, kosta ala kosta. Zenbat denbora igaro zen guda hasi zenetik? Batek zekien. Gaua eta eguna bereiztea ez zitzaion ahaztu, baina lasai egotea errege eta erreginek zuten pribilegioa besterik ez zen.

Bultza egin zion zerbaitek eta buelta eman zuenean esku-ohean zauritutako zaldun bat zeramaten bi pertsona urruntzen ikusi zituen. Gizonak hesgailu zalapartatsua zuen saihetsean, hezi edo ezpata zauri bat, seguraski. Tristanak berak zaindu gabeko zauri guztiak nabaritu zituen bat-batean, haztatu zezakeenak behintzat. Inor ez zen gudatik osorik irteten. Bataila-eremuari bueltatu zion arreta eta mingaina

klaskatu zuen nahi gabe, malkoei eutsiz, aurrean ikusten zuen sarraskiari ezetz esanez. Bizirauleak ziren, ez garaileak. Armadura baten zango-babes-en hots metalikoa beregana hurbiltzen antzeman zuen orduan. Gizonezkoa bere ondoan gelditu zen une batez, gero, ukondoak petrilaren gainean ipini zituen eta hasperen egin zuen.

—Zapore nazkagarria duzu zuk ere? —galdetu zion gizonak. Ile ilunduna zen eta aurpegia ezkerretik eskuinera zeharkatzen zion orbaina zuen sudurraren gainean.

—Zer sentitzen dudan ere ez dakit. Sinesgaitza da dena bukatu dela jakitea baina hala ere lasaigarririk ez topatzea —erantzun zuen Tristanak urrutira begira—. Zu hemen ikusteak harritzen nauela esango nuke, baina zorte oneko sasikumea izan zara beti, Joanes.

—Pairatu beharrekoak pairatu ditut, Tris —esan zuen burumakur—. Pozten nau zu arnasten ikusteak, behintzat lagun bat bizirik izango dut gaur egunsentia heltzen denean.

Tristanak soinu bat egin zuen, baina Joanes-ek ez zuen haren esanahia guztiz ulertu. Gizonak burua esku artean hartu zuen eta kasketa kendu zuen tira eginez; ordurako bisorea galduta zeukan aspaldi. Eguzkiak Joanesen azala laztandu zuen bere izpiekin eta aurpegian agertzen zitzaizkion marka guztien burrunba une batez isilarazi zuen. Orbainetik pasa zituen behatzak aurrera eta atzera, gudak betirako eman zion oroigarri horren presentzia ezabatzeko asmoa balu bezala. Ondoren, indarrek ihes egin balioke bezala, kaskoa ingurabidetik erotzen utzi zuen.

—Gure lurra defendatzea lortu dugu itxura guztien kontra. Oreinak bideari darraio, baso eginez —gehitu zuen grinik gabe.

Azken hori, Urreadar etxearen lema zen, baina Tristanak ez zuen inoiz horrelako tristurarekin entzun.

—Ez dakit sari nahikoa den —esan zuen Tristanak, besoarekin Joanesen sorbaldak estaliz.

Orduan bai, bien arteko adiskidetasun eta enpatiaren zubia eraiki zutenean, negarrari ekin zioten zerua oskorritzen ari zela.

Urreadar etxeko bostehun zaldun izan ziren mugako gaztelua defendatu zituztenak hiru mila bururen kontra. Serbal Erresumaren azken eraso desesperatua izan zen Zozo Errepublikari nolabaiteko kaltea eragiteko. Bostehun ingurutik, ehun eta hogeita hamarrek bakarrik lortu zuten bizirik irtetea. Abantaila ugari izan zituzten: lurraren ezagutza, gotorlekuaren baliabideak, bolbora... eta horri esker erresumaren oldarraldi suizidari, ohorea salbatzeko egin zuten azken saiakerari, aurre egitea lortu zuten gutxi batzuek.

Gau hartan, Tristanak armadura kendu zuen, logelako bazter batera jaurtiz. Kiloak baino, urte pila gainetik kendu zuela sentitu zuen. Ilargia kanpoko isiltasunaren zaindaria zen, eta dena ondo zegoela adierazi zion Tristanari, bere izpiak okupatzen zituen gelara isuriz. Gogo gutxi izan arren, gose zen eta bere gorputza jangela bideratu zuen poliki-poliki. Gazteluaren harrizko eskailera zaharrak jaisten ari zela, errepublikako lehendakariari guzti honen berri noiz helduko zitzaion galdetu zion bere buruari. Laguntza bidaliko zuen hau dena garbitzeko, ezta? Bere etorkizuna mendiren batean egongo zen seguru, ardiak zaintzen akaso, txikitan amamak esaten zion bezala. Edozer gauzari eskaini zion bere burutazioak, jantokian espero zitekeen irudi bere burutik uxatzeko; aulki huts baten esanahiari inoiz ez zion izan hainbesteko beldurrik.

Lehen, jangelak atebat zuen, baina orain dela bi eguneko borrokaldian Serbalista baten aiztoak bitan banatu zuen. Orain jantokirako sarbidea hutsik zegoen eta barruan sortzen ziren metalezko tresnen soinuen oihartzuna gaztelu osoan entzuten zen. Tristanak ozen arnastu zuen urduritasuna baretzeko eta aurrerapausoa eman zuen. Alde batetik bestera pasa zuen begirada eta azkenean ezaguna egin zitzaion pertsona bat topatu zuen. Ohartu zenean, barrenak astindu zitzaizkion. Pareta kontrako mahai batean, buru makur eta pitxerretik gogo gutxirekin edaten Aralar zegoen; alboan makulu bat zuen, galdutako hanka ordezkatzeko. Tristanak bi gauza zituen argi:

Aralarrek ez zuen hizketaldi alaiak izateko aurpegia eta bera gose zela. Sorbaldak hondoratu zituen eta mahaira gerturatu zen.

—Badago beste batentzako lekua? —galdetu zuen Tristanak irribarre antzeko zerbait lortuz.

—Inork ez digu errazio kakati honek kenduko, jarri nahi baduzu —erantzun zuen honek, lehor—. Lehendakariaren gudarostea etzi helduko dela esan dute, despentsak betetzeko, zaurituak behar den bezala artatzeko eta hildakoen gorputzak etxera eramateko. Zer nolako ohorea, non zeuden orain arte? Gobernuaren jauregitxoak apaintzen!? —Irainarekin batera labana indarrez iltzatu zion mahaian zuen ogi gogorrari—. Barkatu.

—Lasai —erantzun zuen Tristanak. Gero, mahaian sakabanatuta zegoen janaria batu zuen plater batean, hala moduko afari bat osatzeko—. Ez dago aringarrik guretako, Aralar, baina bukatu da guda. Inork ez digu berriz holakorik eskatuko.

—Gizakiaren handinahi puta hau ez da inoiz akabatuko, Tristana —erantzun zion, begirada irmo batez mailukatuz—. Pozoia bezalakoa da eta odolean daramagu.

—Zer egingo duzu orain? —jaurti zuen bat batean Tristanak, Aralarren hitzen zekenkeria baztertuz. Gizonaren aurpegia guztiz aldatu zen galderak etorkizunean pentsatzera behartu zuenean.

—Bi hanka behar dira gauza gehienak egiteko. Beharbada, makuluaz txorimaloa izan naiteke familiaren ortuan —erantzun zuen. Tristanak Aralarren begietan itxaropen distira iheskorra antzeman zuen—. Zuk?

—Artzaintzak erakartzen dit.

Aralarrek harridura keinu bat egin zuen.

—Noiz eta zergatik erabaki zuten gu bezalako nekazari kaxkarrak frontera eramatea galdetzen diot nire buruari askotan —Aralarrek teilatura begiratu eta

hasperen luze bat askatu zuen—. Nahitaezkoak ez garelako, suposatzen dut —gehitu zuen eta aurpegia berriz garraztu zitzaion.

—Zorionez, denbora izango dugu erantzun horretan pentsatzeko.

—Baita galdu ditugun guztien ohorez bizitza gozatzeko.

Tristanak mahaian zegoen pitxerra hartu zuen. Erdi hutsik zegoen eta auskalo zer zen barruan zeraman likidoa, baina hala ere, buruaren gainetik jaso zuen.

—Topa egin dezagun horregatik.

Aralarrek bere pitxarra jaso zuen, beste aldera begira, irribarre txiki bat ezkutatuz.

Astebete geroago, Zozo Errepublikako gudarostea gazteluan zen. Urreadar etxeko aital lehena haiekin etorri zen ere, bere zaldunei eskerrak emateko. Gehienek eskua eman zioten errespetuz, baina ez zuten inolako poztasunik erakutsi hura ikustean. Tristanak uko egin zion zeremonia faltsu horri, eta bere ondasun guztiak biltzen jarraitu zuen; gaur zen bere azkenengo eguna, azken finean. Urreadar etxeko lurretan egingo zuen lana etorkizunean, bere familia bizi zen herrixkako zelaietan. Agian bertan bakea eta poza aurkituko zuen berriro.

Harrizko paretan eskua jarri zuen eta leiho gabeko zulotik begiratzeko. Errepublikaren tropen kanpadenda urdin eta horiak begiek antzematen zuteneraino hedatzen ziren. Gaztelua haien esku geratzen zen orain, eta horrekin, baita berak eta besteak defendatu zuten muga. Galdutako lagun eta kideen izenen zerrenda buruan zeraman; ez zituen ahaztuko. Halako batean, atea jo zuten.

—Aurkezarri zaude? —galdetu zuen emakume baten ahotsak atearen beste aldetik—. Etxera eramango diguten lehenengo gurdiak hemen daude jada. Aital lehena ekiditea nahi izanez gero, zu izango banintza, azkar ibiliko nintzake.

Moira zen. Hirikume ilehori txikia. Alde batetik bestera korrika, ahal zuen guztia eramaten gogoratzen zuen Tristanak, gudaren azkenengo hiru egun eta gauetan batez

ere. Ez zitzaion batere arraroa iruditu bizirik irten izana, kaxoi batean sartuko zen agian, Serbalistak guztiz saihestuz. Sastada bat jasan zuen barrunbeetan. Burua engainatu nahi zuen horrelako tontakeriak esanaz, galdutako guztia estaliz eta ikusitako odola ahaztuz, baina ez zen zuzena. Bihozmin sentitu zen berehalakoan.

—Aurrera —esan zuen azkenean. Neska oraindik atearen beste aldean nabaritu zuen eta Tristanak bazekien ez zuela alde egingo zerbait esan arte. Lagunkoi izatea, Moirak zuen bertute bakarra bazen ere, balio kalkulaezineko pertsona bilakatzen zuen neskatoa.

Atartean buru bat azaldu zen, gela barruan munstro bat balego bezala tentuz begira. Tristanak bizkarra eman zion eta arropak zorroak sartzeari berrekin zion. Moirak egurrezko ate ahularen babesa utzi zuen halako batean, eta eskumuturrak buru gainean gurutzatu zituen Urreadar etxearen militar-agurra eginez.

—Ez daukazu hori gehiago egin beharrik, Moira —esan zion Tristanak, keinua betertzetik ikusita—. Eta eskerrak.

—Ohartu gabe egiten dut, egun batzuk pasa dira besterik ez eta... —oraingoan Moirak lurrera begiratu zuen eta isiltasun astun batek irentsi zuen gela. Tristanak begiratu zuenean, neskatoaren larritua ohartu zuen.

—Zer moduz zaude? —galdetu zion halako batean, azkenengo zorroa betetzat eman zuenean.

—Zuk, amesgaiztoak dituzu, Tristana? Gudari buruz, sarraskia, heriotza...— erantzun zuen beheko ezpanari kosk eginez, damututa, aipatuaz bakarrik guztiak egia bilakatu zintezkeela pentsatuz.

Tristanak arnasa hartu zuen eta ohean eseri zen, eguzkiari bizkarra ematen. Bai, berak ere bazituen. Kemen asko behar izaten zuen bizipen haiek bere buruan sortu zuten lokatz putzutik burua ateratzeko. Dena bukatu zenetik gauzatzen zuen balentria bakarra bizitzari aurpegi alai bat erakusten saiatzea zen.

—Bai, baditut, bai. Guda bukatu zenetik gau erdiak izerdiz blai esnatuta gogoratzen ditut. Ez daukat aholkurik, Moira. Sufritu duguna ez da normala eta txarrena botikarik ez dagoela da. Sariak eta esker onak ez dituzte mamu horiek uxatuko, guk geuk eta denborak bakarrik.

Enpatiak ez zuen lortuko neskatoaren sufrikarioa sendatzea, baina Tristanaren hitzak entzun eta gero Moiraren sorbaldek erakusten zuten zurruntasuna zerbait erlaxatu zen.

—Eskerrik asko, Tris —erantzun zuen—. Esan bezala, herrixka ezberdinetara doazen lehen gurdiak prest daude eta aitalehena bazkaltzen dago oraindik, beraz, momentu aproposa litzateke alde egiteko.

Tristanak irribarre batekin eskertu zion jakinarazpena.

—Eta Tris? —jarraitu zuen Moirak— Zu ezagutu izanaz pozten naiz. Agian hemendik ez ditugu oroipen oso politak eramango gurekin, baina iraun duen guztiaren artean burumakur ez dagoen norbait dagoela jakiteak, posible dela, alegia, indarra ematen dit.

Moirak hura aitortu ostean, Tristanak ez zuen erantzuteko aukera izan. Neskatoak buelta eman eta gaztelu barnean murgildu zen, bertan zeuden beste biziraule batzuei berriak eskaintzeko, beharbada. Tristanak begiak hazkatu zituen, zerbait sartu zitzaion beharbada.

Motxila bizkarrean hartu zuen, eta bestelako zorroak hala nola hartu zituen berarekin. Harrigarria egin zitzaion horrelako toki batetik hain beste gauza eramateko zituela jabetzeak. Ateburura heldu zenean, horrenbeste asteetan bere logela izandakoari azkenengo begiratu bat eman zion. Hutsik eta hotza zegoen, esperientzia guzti honen ostean zaldun gehienak zeuden bezala. Zaplada pare bat eman zizkion harrizko paretari, eta gero atea itxi zuen, harrizko eskailera zaharren bidea hartzeko.

Moirak esan bezala, gurdiak gertu zeuden eta haien ondoan zaldun gutxi batzuek ilara egiten zuten igotzeko bere txanda itxaroten. Gidaria herritar bat zen, ez soldadua. Urreadar etxeko zaldunek zuten garrantziaren beste adibide bat zela pentsatu zuen Tristanak, soinean zituen fardelak laguntzaile bati ematen zizkion bitartean. Ondoren, gurdira igotzen lagundu zuten; berarekin batera beste bi pertsona zeuden soilik. Gizon eta emakume bat ziren, baina ez zituen ezagutzen. Auskalo gudan arituak ziren edo ez, baina haien begiek erakusten zuten traumaren arabera, lehen usteak zuzenagoa zirudien.

Tristanak burua jaso zuen, gidariak zaldiak hots batekin mugiarazten zuen aldi berean, eta orgaren erroberak poliki-poliki martxan jarri ziren. Norbait bila aritu zen une batez, azkenengoz norbait agurtzeko bederen, baina ez zen inoren arrasturik. Ondo egongo ahal zen Joanes? Ze plan izango zituen Aralarrek? Bizitzeko indarra galtzeaz aparte, hanka bat galdu izanak lauza baten gisa pisatuko zion etorkizun guztirako. Ingurubidean bi pertsona zeuden berriketan, armaduraz jantzita. Bera ere leku berdinean egon zen askotan, guardia egiten. Tristanak begiak erdi itxi zituen eta bietako bat Moira izan zitekeela iruditu zitzaion. Besoa jaso zion agurtzeko, alde batera eta bestera mugitzen, baina ez zuen keinurik jaso bueltan. Hala ere, gaztelua urrutian desagertzen zen bitartean, Tristanak agurtzen jarraitu zuen, guztiari, guztiei, betirako.